

Aurrematrikula-epea:
martxoaren 28tik apirilaren 8ra

Zamalbide auzoa, 16
20100 Orereta/Erretera
943 52 38 04 / 943 52 03 97
oiartzo@ikastola.eus
www.oiartzoikastola.eus



Ikasle eta familiek aukera
guztien berri izan dezaten,
eska iezaguzue informazio
gehiago; atsegin handiz
jarriko gara zuekin
harremanetan.



Euskalduna.
Hurbila. Bizia.
Berritzailea.
Kalitatezkoa.



Oiartzo batxilergo-ikastola Oiartzungo Haurtzaro Ikastolak eta Orereta Ikastolak sortu zuten 90. hamarkadaren amaieran. Batxilergo euskalduna, kalitatezkoa eta aukera zabalekoa eskaintzea dugu xede.

Haurtzaro eta Orereta Ikastolak bezalaxe, Oiartzo Ikastola ere Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kide da, kalitatezko euskarazko hezkuntzaren berme.

Etorkizuneko jendarte eta pertsona euskaldunak prestatzeko bidean, hauexek dira gure lan-ildo nagusiak:



Euskara eta euskal kultura oinarri eta iparrorratz

Oiartzo Ikastolan euskaraz bizi gara, eta euskal kultura eta historia gure egunerokoaren parte dira. **Etorkizuneko jendarte euskaldunak beharko dituen herritarrak prestatzea da gure xedea;** herritar eleaniztunak, gaztelania, frantsesa eta ingelesa ere lantzen baititugu.

Orientazio pertsonalizatua

Oiartzo Ikastolan ikasle bakoitzari arreta pertsonalizatua eskaintzen diogu; bereziki, **etorkizunean hartuko dituen erabaki garrantzitsuetarako laguntza** eskainiz, bidelagun izanez.



Hurbiltasuna

Oiartzo Ikastolan **guraso zein ikasleentzako banakako arreta** eskaintzen dugu tutoreen bitartez. Ikasle bakoitzaren beharrak asetzea da helburua, ikasle, irakasle eta gurasoen elkarlanari esker.

Lantalde egonkorra eta esperientziaduna

Oiartzo Ikastolak **goi-mailako ikasketak egiteko oinarri sendoa** eskaintzen du, esperientzia handiko irakasle-talde egonkorrari esker. Hala erakusten digute batxilergo-ikasketak bukatzean urte urte ikasleek lortzen dituzten emaitzek.

Berritasun pedagogikoak eta teknologia digitalak

Oiartzo Ikastolaren lan-metodologian barneratuta ditugu berritasun pedagogiko eta teknologikoak. Gaurdanik hasi behar dugu **ikasleei etorkizunean sor dakizkiekeen beharrei erantzuten.**